**INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

LEHIAKETA PUBLIKOA. Iragarkia, euskara-gaztelera-euskara itzulpen eta zuzenketa lanak egiteko zerbitzuaren kontratua esleitzekoa (ICT 14/39/06 espedientea). 23726

# Xedapen Orokorrak

**INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

**5923**

224/2006 DEKRETUA, azaroaren 14koa, krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dituen Dekretua aldatzen duena.

Abenduaren 26ko 300/2000 Dekretuak, krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dituenak, helburu argia dauka: laguntza-programa bat onartzea industria-, merkataritza- eta turismo-arloan, krisialdiak jota dauden enpresak berregituratu eta bultzatzeko.

Dekretu hau Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak emaniko 2001eko maiatzaren 29ko eta 2003ko abenduaren 1eko aginduen bidez garatzen da. Lehenengoaren helburua da laguntza hauetatik kanpo geratzen diren sektoreak eta arloko berariazko arauak dituzten enpresak zein diren zehaztea; bigarrenaren xedea da, berriz, laguntza-erregimenetik kanpo uztea Foru Arauren baten onura fiskalez baliatu diren enpresak eta Lurralde Historikoen erregimen fiskalen esparruan bidegabeki emaniko laguntzak, kreditu edo zerga-opor gisa, itzultzearen ondorioz galera ekonomikoak izan dituztenak.

Laguntza hauek, krisialdiak jotako enpresak salbatzera eta berregituratzera bideratutako laguntzari buruzko Batasuneko Jarraibideetan sartzen direnak, jarraibide hauen esparruan sartzen diren sektoreei aplikatzen zaizkie, hainbat sektoretarako indarrean diren berariazko arauen kalterik gabe.

Programa honen aplikazio egokiak industria-egituran sortu dituen eragin positiboak egiaztatuta, erakundeek lehia askean duten esku-hartzea txikiagotzeko irizpidea oinarri hartuta, eta lehia-baldintzak modu egonkorrean berrezartzeko bidea erraztu eta tartean diren alderdi guztiei etorkizunerako egiazko konpromisoak eskatuta, Europako Batzordeak, 2003ko ekainaren 25eko

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

CONCURSO PÚBLICO. Anuncio para la adjudicación del contrato que tiene por objeto la contratación de los servicios de traducción y corrección euskera-castellano-euskera (Expediente: I.C.T. 14/39/06). 23726

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

**5923**

DECRETO 224/2006, de 14 de noviembre, de modificación del Decreto por el que se establecen ayudas destinadas a la reestructuración y relanzamiento de empresas en crisis.

El Decreto 300/2000, de 26 de diciembre, por el que se establecen ayudas destinadas a la reestructuración y relanzamiento de empresas en crisis tiene por objeto establecer un programa de ayudas en el área de industria, Comercio y Turismo destinado a la reestructuración y relanzamiento de empresas en crisis.

Dicho Decreto se desarrolla mediante Órdenes del Consejero de Industria Comercio y Turismo, de 29 de mayo de 2001 y de 1 de diciembre de 2003. La primera tiene por objeto especificar los sectores que quedan excluidos de estas ayudas así como las empresas que cuentan con normas sectoriales específicas, la segunda, excluir del régimen de ayudas a las empresas que se hubieran acogido a los beneficios fiscales derivados de determinadas Normas Forales y de aquellas con pérdidas económicas generadas por la restitución de ayudas concedidas de manera indebida en el marco de regímenes fiscales de Territorios Históricos, en forma de créditos o vacaciones fiscales.

Dichas ayudas que se enmarcan en las Directrices Comunitarias sobre ayudas destinadas al salvamento y reestructuración de empresas en crisis, se aplican a los sectores incluidos en el ámbito de las referidas directrices, sin perjuicio de las normas específicas existentes para determinados sectores.

Constatados los efectos positivos generados en el entramado industrial por la correcta aplicación de este programa, en base al criterio de minimizar la interferencia de las instituciones en la libre competencia, favoreciendo el restablecimiento de las condiciones competitivas de forma estable y exigiendo compromisos reales de futuro a todas las partes implicadas, la Comisión

Erabakiaren bidez, aipaturikoa aplikatzeko epea luzatu zuen, 2004, 2005 eta 2006. urteetara.

2004ko uztailaren 7an, Batzordeak Batasuneko beste Jarraibide batzuk onartu zituen, krisialdiak jotako enpresen salbamendu eta berregituratzeen Estatuko laguntzei buruz, eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2004ko urriaren 1eko C 244 zenbakian.

Jarraibide berri hauen bidez, aurrekoetan oinarritutako testuak dituztenak (EO, C 288, 1999ko urriaren 9koa), Batzordeak hainbat alderdik eraginiko aldaketa eta argibideak sartu nahi izan ditu.

Jarraibideen 99. atalaren arabera, Batzordeak EEE Itunaren 88. artikuluko 1. idatz-zatiaren araberako neurriak proposatzen ditu orain, zehazki esateko, abenduaren 26ko 300/2000 Dekretua Jarraibide berrietara egokitzea eskatzen du.

Ondorioz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren proposamenez, eta 2006ko azaroaren 14ko bilkuran Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– 4. paragrafoa gehitu zaio abenduaren 26ko 300/2000 Dekretuko 3. artikuluari. Dekretu honek krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak ezartzen ditu, eta hortaz, honela idatzirik geratu da:

«4.– Onartutako berregituratze-plana eta emaniko laguntzen zenbatekoa aldatzeko baimena eman ahal izango da, baldin eta berrikusitako berregituratze-planak helburutzat badu arrazoizko epe baten buruan bideragarri izatera itzultzea. Batzordeari berregituratze-planean baimenduriko aldaketa oro jakinarazi beharko zaio.

Berregituratze-planean eginiko aldaketen gaineko baimenak honako arauak bete beharko ditu:

a) Berregituratze-plana aldatzeak berekin badakar laguntza hori handitzea, eskatzen den edozein kontrapartidak hasieran eskatutakoak baino garrantzi handiagoa izan beharko du.

b) Berregituratze-plana aldatzean proposatutako kontrapartidak hasieran ezarritakoak baino txikiagoak badira, proportzioan murriztuko da laguntzaren zenbatekoa.

c) Proposatzen den aldaketak berekin badakar kontrapartidak gauzatzeko egutegi berria ezartzea, enpresari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiek eraginda soilik atzeratu ahal izango da egutegia hasiera batean ezarritakotik.»

***Bigarren artikulua.***– Beste modu batera idatzi da abenduaren 26ko 300/2000 Dekretuko 4. artikuluko 3.

Europea por Decisión de 25 de junio de 2003, prorrogó el plazo de aplicación del mismo ampliándolo al período 2004, 2005 y 2006.

El 7 de julio de 2004, la Comisión adoptó unas nuevas Directrices Comunitarias sobre ayudas estatales de salvamento y de reestructuración de empresas en crisis, siendo publicadas en el Diario Oficial de la Unión Europea, n.º C 244 de 1 de octubre de 2004.

Mediante estas nuevas Directrices, cuyo texto se inspira en las anteriores (DO C 288 de 9 de octubre de 1999), la Comisión desea introducir algunos cambios y aclaraciones motivadas por diversos factores.

De conformidad con el apartado 99 de las Directrices, la Comisión propone ahora medidas apropiadas en el sentido del apartado 1 del artículo 88 del Tratado CEE, en particular, que se adapte el Decreto 300/2000, de 26 de diciembre, a las nuevas Directrices.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el 14 de noviembre de 2006,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se añade el párrafo 4 al artículo 3 del Decreto 300/2000, de 26 de diciembre, por el que se establecen ayudas destinadas a la reestructuración y relanzamiento de empresas en crisis, quedando redactado en los siguientes términos:

«4.– Se podrán autorizar modificaciones del plan de reestructuración aprobado y del importe de la ayudas concedida siempre que el plan de reestructuración revisado tenga como objetivo el retorno a la viabilidad en un plazo razonable. La Comisión será informada de toda modificación del plan de reestructuración autorizado.

La autorización a la modificación del plan de reestructuración habrá de cumplir las normas siguientes:

a) Si la modificación del plan de reestructuración supone un incremento de la ayuda, la importancia de cualquier contrapartida exigida deberá ser mayor de lo requerido inicialmente.

b) Si las contrapartidas propuestas en la modificación del plan de reestructuración son inferiores a las previstas inicialmente, se reducirá proporcionalmente el importe de la ayuda.

c) Si la modificación propuesta supone un nuevo calendario en la ejecución de las contrapartidas sólo podrá retrasarse con relación a lo previsto en un principio por razones no imputables a la empresa.»

***Artículo segundo.***– Se da nueva redacción al párrafo 3 del artículo 4 del Decreto 300/2000, de 26 de di-

paragrafoa, krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dituena. Honela idatzirik geratu da:

«3.– Ezin izango dira Dekretu honetan arautako laguntzez baliatu:

a) Enpresa eratu berriak, batez ere lehengo enpresa bat likidatzean edo haren aktiboak bereganatzean sortutako enpresa berriak, nahiz eta hasierako finantza-egoera larria izan.

Arau honetan ezarritakoaren ondorioetarako, enpresa bat berria dela esaten da dagokion jarduera-sektorean operazioak egiten hasi ondoko hiru urteetan.

Ondorio berberetarako, ez da enpresa eratu berritzat joko enpresa batek beste enpresa bateko aktiboak eta, hala badagokio, pasiboak eskuratzeko asmo bakarrarekin sorturiko filiala.

b) Talderen bateko kide diren enpresak, non eta ez diren gai egiaztatzeko zailtasun horiek beraiei dagozkiela eta ez taldearen hautazko kostuei.

c) Aspaldidanik gehiegizko egitura-gaitasuna duen merkatuan diharduten enpresak, Batasuneko sektore anitzeko Jarraibideen testuinguruan definitzen denaren arabera, inbertsio-proiektu handietarako eskualde-laguntzei buruz.»

***Hirugarren artikulua.***– 4 bis. artikulua gehitu zaio –Lehiaren gaineko faltsutze bidegabeei aurrea hartzekoa– abenduaren 26ko 300/2000 Dekretuari, krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dituenari. Ondorioz, honela idatzirik geratu da:

«4 bis. Artikulua.– Lehiaren gaineko faltsutze bidegabeei aurrea hartzea.

1.– Merkataritza-baldintzen gaineko ondorio negatiboak ahalik eta gehien murrizteko helburuz, enpresa ertainek kontrapartidak sartu behar dituzte. Eskaera, bestela, «guztien interesen aurkakotzat» joko da, eta ondorioz, bateraezina izango da merkatu bateratuarekin. Kontrapartiden egokitasuna zehaztean, kontuan hartuko da epe luzera bideragarritasuna berrezartzeko helburua.

2.– Neurri hauetariko batzuk izan daitezke aktiboak saltzea, enpresaren neurria edo merkatuan duen tokia murriztea, eta dagozkion merkatuetan sartzeko oztopoak gutxitzea. Kontrapartidak egokiak diren ebaluatzean, kontuan hartu beharko dira merkatuaren egitura eta lehiaren baldintzak, neurri hauetariko batek ere mer-

ciembre, por el que se establecen ayudas destinadas a la reestructuración y relanzamiento de empresas en crisis, quedando redactado en los siguientes términos:

«3.– No podrán acogerse a las ayudas reguladas en el presente Decreto:

a) Las empresas de nueva creación aunque su situación financiera inicial sea precaria, especialmente, las que hayan surgido de la liquidación de otra empresa anterior o de la absorción de sus activos.

A efectos de lo previsto en esta norma, se considera que una empresa es de nueva creación durante los tres primeros años siguientes al inicio de sus operaciones en el correspondiente sector de actividad.

A los mismos efectos, no se considerará que la creación de una filial por parte de una empresa con el único propósito de recibir sus activos y, en su caso, su pasivo constituye una empresa de nueva creación.

b) Las empresas que formen parte de un grupo, salvo que se pueda demostrar que las dificultades por las que atraviesa la empresa le son propias y no derivan de una asignación arbitraria de los costes dentro del grupo.

c) Las empresas que operan en un mercado que padece un exceso de capacidad estructural desde hace tiempo, según se define en el contexto de las Directrices comunitarias multisectoriales sobre ayudas regionales a grandes proyectos de inversión.»

***Artículo tercero.***– Se añade el artículo 4 bis.-Prevención de falseamientos indebidos de la competencia- al Decreto 300/2000, de 26 de diciembre, por el que se establecen ayudas destinadas a la reestructuración y relanzamiento de empresas en crisis, que quedará redactado en los siguientes términos:

«Artículo 4 bis.– Prevención de falseamientos indebidos de la competencia.

1.– Con objeto de velar por reducir todo lo posible los efectos negativos sobre las condiciones comerciales, las empresas medianas han de introducir contrapartidas. De lo contrario la solicitud se considerará «contraria al interés común» y, por consiguiente, incompatible con el mercado común. Al determinar la idoneidad de las contrapartidas, se tendrá en cuenta el objetivo de restablecer la viabilidad a largo plazo.

2.– Estas medidas pueden consistir en la venta de activos, en reducciones de capacidad o de la presencia en el mercado, y en la disminución de los obstáculos a la entrada en los mercados afectados. Al evaluar si las contrapartidas son adecuadas, se tendrá en cuenta la estructura del mercado y las condiciones de la competencia con

katuaren egitura okertzen ez duela bermatzeko, adibidez, ziurtatuz ez duela zeharka monopolio edo oligopolio murritzeko egoerarik eragiten. Egoera hau sortuko dela egiazta badaiteke, ezarritako kontrapartidek helburutzat izan beharko dute halakorik saihestea.

3.– Lehiaren gaineko faltsutze bidegabeei aurrea hartzeari dagokion beste edozein gaitarako, kontuan hartuko da Batasuneko Jarraibideek ezarritakoa, krisialdiak jotako enpresen salbamendu eta berregituratzeen Estatuko laguntzei buruz (2004/C 244/02)».

*Laugarren artikulua.*– Beste era batera idatzi da abenduaren 26ko 300/2000 Dekretuaren 5. artikuluko 3. paragrafoa, krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dituena. Ondorioz, honela idatzirik geratu da:

«3.– Laguntzen bateragarritasuna eta mugak.

a) Dekretu honetan ezarritako laguntzak bateragarri izango dira beste Erakunde edo Administrazio Publikoek helburu berbererako emaniko beste laguntza batzuekin.

Laguntzaren zenbatekoak, beste laguntza edo diru-laguntzekin bateratuta, artikulu honen 2. idatz-zatian ezarritako mugak gainditu ahal izango ditu.

b) Onuradun berberak jasoko balitu berregituratze-laguntzak, kapital-ekarpena direnean, aurrerakin itzulgarriak, maileguak, bermeak, zor-barkatzeak, zerga-kenkariak edo Gizarte Segurantzarako kotizazio-murriztapenak, eta guztien baturak 10 milioi euro gaindituko balitu, Europako Batzordeak eman beharko luke aurretiazko baimena arau honetan ezarritako laguntzen esleipenerako, Krisialdiak jotako Enpresen Salbamendu eta Berregituratzeen Estatuko Laguntzei buruzko Batasuneko Jarraibideen 4.5 puntuan ezarritakoaren arabera.

c) Krisialdiak jotako enpresa bati laguntza bidegabe bat aitortu bazaio aurrez, eta Batzordeak honi buruzko erabaki negatiborik hartu eta laguntza hori berreskuratzeko agindua eman arren eskuratu ez badu, Kontseiluaren 659/1999 (EE) Erregelamenduaren, 1999ko martxoaren 22koaren, EE Ituneko 93. artikuluko aplikazio-xedapenak ezartzen dituenaren, 14. artikuluaren arabera; enpresa horri berari Dekretu honen arabera emango zaion laguntzaren ebaluazioan, kontuan hartu beharko da, lehenik, bi laguntzen ondorio metagarria –zaharraren eta berriaren artekoa–, eta bigarrenik, ez dela lehendabizikoaren dirurik jaso.»

objeto de garantizar que ninguna de estas medidas suponga un deterioro de la estructura del mercado, por ejemplo, produciendo el efecto indirecto de crear una situación de monopolio u oligopolio restringido. Si se puede demostrar que se planteará esta situación, las contrapartidas establecidas deberán tener por objeto evitar las mismas.

3.– Para cualquier otra cuestión referida a la Prevención de falseamientos indebidos de la competencia, se estará a lo dispuesto en las Directrices Comunitarias sobre ayudas estatales de salvamento y de reestructuración de empresas en crisis (2004/C 244/02)».

*Artículo cuarto.*– Se da una nueva redacción al párrafo 3 del artículo 5 del Decreto 300/2000, de 26 de diciembre, por el que se establecen ayudas destinadas a la reestructuración y relanzamiento de empresas en crisis, quedando redactado en los siguientes términos:

«3.– Compatibilidad y límites de las ayudas.

a) Las ayudas establecidas en el presente Decreto serán compatibles con ayudas otorgadas por otros Entes o Administraciones Públicas en las que se contemple la misma finalidad.

El importe de la ayuda, en concurrencia con otras ayudas o subvenciones, podrá superar los límites establecidos en el apartado 2 del presente artículo.

b) Cuando las ayudas de reestructuración, en forma de aportaciones de capital, anticipos reintegrables, préstamos, garantías, condonaciones de deuda, deducciones de impuestos o reducción de las cotizaciones a la Seguridad Social, percibidas por un mismo beneficiario superase en conjunto la cifra de 10 millones de euros se precisará autorización previa de la Comisión Europea para la concesión de las ayudas establecidas en la presente norma, de conformidad con lo establecido en el punto 4.5 de la Directrices Comunitarias sobre Ayudas Estatales de Salvamento y Reestructuración de Empresas en Crisis.

c) Cuando se haya concedido anteriormente a una empresa en crisis una ayuda ilegítima respecto de la cual la Comisión haya adoptado una decisión negativa con una orden de recuperación, y dicha recuperación no se haya producido de acuerdo con lo establecido en el artículo 14 del Reglamento (CE) n.º 659/1999 del Consejo, de 22 de marzo de 1999, por el que se establecen disposiciones de aplicación del artículo 93 del Tratado CE, en la evaluación de la ayuda que vaya a concederse a la misma empresa con arreglo al presente Decreto, se deberá tomar en consideración, en primer lugar, el efecto acumulativo de ambas ayudas-la antigua y la nueva- y, en segundo lugar, el hecho de que la primera no ha sido reembolsada.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko azaroaren 14an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 14 de noviembre de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 5924

EBAZPENA, 2006ko urriaren 9koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Graduko eta Graduondoko Ikasketetako errektoreordearena, Doktoregoaren Gestiorako Araudian egindako aldaketak argitaratzeko dena (doktorego programak luzatzeari eta doktorego tesietako epaimahaiari, defentsari eta ebaluazioari buruzko atalak).

2005eko abuztuaren 12an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Euskal Herriko Unibertsitateko Graduondoko Ikasketetako errektoreordearen 2005eko ekainaren 29ko ebazpena, Doktoregoaren Gestiorako Araudia (2005-2006) argitaratzeko agindua ematen zuena. Arautegi hori 2005eko ekainaren 16an onartu zuen Gobernu Kontseiluak.

Urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretua, unibertsitateko graduondoko ikasketa ofizialak arautzen dituena, 2005eko urtarrilaren 25ean argitaratu zen Estatuko Buletin Ofizialean. Errege Dekretu horretan aurreikusita dago doktorego programak desagertu egingo direla eta, edonola ere, 2007ko urriaren 1a baino lehen hasi behar direla desagertzen. Aurreikusita dago, halaber, graduondoko programak jarriko direla abian apurka-apurka. Lehenengo xedapen iragankorrean jasota dagoenez, errege dekretua indarrean sartzean doktoregoko ikasketak hasita dituzten ikasleei ikasketa horien araberako doktore titulua ematea eta doktoregoa arautzen duten xedapenak aplikatu behar zaizkie, kasuan kasuko programak desagertu bitartean. Aldiz, doktorego tesia egiteari, epaimahaiari, defentsari eta ebaluazioari dagokienean, 56/2005 EDko aurreikuspenak aplikatu behar dira.

Ikasturte bat iragan ondoren aipatutako errege dekretua indarrean sartu zenetik, eta 2005-2006 ikastur-

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

## 5924

RESOLUCIÓN de 9 de octubre de 2006, de la Vicerrectora de Estudios de Grado y de Posgrado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se procede a la publicación de la modificación de la Normativa de Gestión de Doctorado en lo relativo a la Prórroga de los Programas de Doctorado y Tribunal, Defensa y Evaluación de la Tesis Doctoral.

Con fecha 12 de agosto de 2005, se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco, Resolución de 29 de junio de 2005, de la Vicerrectora de Estudios de Posgrado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se procede a la publicación de la Normativa de Gestión de Doctorado para el curso académico 2005-2006. La citada Normativa fue aprobada por el Consejo de Gobierno el 16 de junio de 2005.

El Real Decreto 56/2005, de 21 de enero, por el que se regulan los estudios universitarios oficiales de postgrado, fue publicado en el Boletín Oficial del Estado el 25 de enero de 2005. En dicho Real Decreto se preveía la extinción de los programas de doctorado; extinción que en todo caso habría de iniciarse antes del 1 de octubre de 2007, y la implantación progresiva de los programas de postgrado. De acuerdo a la disposición transitoria 1.ª, a los estudiantes que a la entrada en vigor del RD hubieren iniciado los estudios de doctorado se les aplicarían las disposiciones reguladoras del doctorado y de expedición del título de doctor/a por las que hubieran iniciado los mencionados estudios en tanto en cuanto no se extinguiesen dichos programas. Por el contrario, en lo relativo a la elaboración, tribunal, defensa y evaluación de la tesis doctoral serían de aplicación las previsiones del RD 56/2005.

Una vez transcurrido un curso académico desde la entrada en vigor de dicho RD, y con la experiencia de